

Bero-beroan

Datu soziolinguistikoak ezkutuan

NAFARROAKO GOBERNUAK 2008ko inkesta soziolinguistikoa eginda dauka. Pérez-Nievas Hezkuntza kontseilariak berak esan zuen emaitzak abenduaren 5etik zituela eskuetan eta martxoan aurkeztuko zirela Parlamentuan. Apirila bukatzean, inkestaren berririk ez da eta NaBai-ko Hezkuntza alorreko Maria Luisa Mangadok kontseilariari azalpenak eskatu dizkio.

Hiru unibertsitate Boliviako indigenentzat

KITXUAZ, AIMARAZ eta guaranieraz irakatsiko dute, baita gartzelaniaz eta

ingelesez ere, Boliviako Unibertsitate Indigenan (Unibol). Unibertsitate bakoitzean (hirurak bereizita egongo dira) 40 bat ikasle izango dira eta hamar irakasle. Horietatik hiruk ez dute ikasketa akademikorik, indigenentzat “jakintsuak” dira. Historikoki baztertu diren sektoreei ikasteko aukera eman eta indigenen ezagutzak berreskuratzea da helburua.

“Azadiya Welat” berriz itxita

TURKIAKO kurduerazko egunkari bakarra da eta enegarren aldiz geldialdiarekin zigortu dute. Hamazazpi urte daramatza kalean eta dozenaka aldiz itxi dute. Izena aldatu eta berriz argitaratzen dute kurduak.

Akusazioa beti bera izan ohi da: “PKK erakundearen propaganda egitea”. 2008ko abenduan ARGIA *Azadiya Welat* egunkariko erredaktoreekin egon zen (2.165 zenbakia).

Arabako funtzionarioentzako plana

ZORTZI URTEKO geldialdiaren ondoren, joan den irailean jarri zuen abian Arabako Foru Aldundiak Euskara Zerbitzua. Besteren artean, urtea amaitu aurretik, foru funtzionarioen herenak euskaraz komunikatzeko gaitasuna izatea jarri dute helburu.

Informatikari Euskaldunen Biltzarra

MAIATZAREN 7AN izango da Donostian UEUko Informatika Sailak eta Miramon Enpresa Digitalak antolatutako VII. Bilkura. *IEB2009: Teknologia berriak, gaur eta bihar* izango du izenburu jardunaldiak.

Hitzaldiak Klusterraren eskutik

EHUKO Udako Ikastaroetan, ekainaren 22, 23 eta 24an, Donostian jardunaldiak izango dira; izenburua hauxe: *Zein bizkuntza hitz egiten du komunikazio gizarteak?*

TALAIAN

Krisia, eta enpresariak “atxikitzea”

Langabezia eta enplegu-erregulazioko espedienteak (EEE) sortu dituen finantza krisiaren ondorioz, hainbat protesta sozial mota ikusi da: manifestazioak, itxialdiak, gose grebak, eta abar. Oraingoz, Frantziako Estatuan gogortu dira gehien protestak. Zenbait enpresari “bahitu” –“atxiki”, hobe esanda– dute despidoengatik edo negoziazioan kalte-ordain hobeak lortzeko asmoz. Sony-n (Landak), 3M izeneko enpresa iparramerikarrean (Loriet), Caterpillar-en (Grenoble) eta Scapa enpresa britainiarrean (Ain) izan dira gertaerok.

Sarkozy Frantziako presidenteak honela erantzun du: “Baina zer da jendea bahitzen ibiltze hori? Ez dut utziko horrelako gauzak gertatzen”. Oposizioak, Segolen Royal hautagai sozialistak, azaldu duenez, “ez da atsegina bahitua izatea, eta ilegala da norbaiti mugitzeko askatasuna kentzea, baina langileek nonbaitetik hautsi behar dute injustizia hori”. PSko idazkari nagusiak, Aubryk, zera esan du: “Pertsonen askatasunaren kontra egiten duen biolentziarik ezin da justifikatu, baina biolentzia soziala hainbesteko basakeriaz ari da erabiltzen, horrelako kasuak azaltzera irits litekeela”.

80ko eta 90eko hamarkadetan izandako euskal industriaren sektore birmoldaketa larrietan antzeko “bahiketa” edo “atxikitzeak” egin ziren, baita parlamentu egoitzen okupazioak ere. Langabezia eta despidoa zelatan direnean, langilea matxinatu egiten da eta edozein bitartekora jotzen du, “biolentoak” izendatu izan diren horietara barne. Horrelakoak eragozteko enpresariak ez lukete soka gehiegi tenkatu behar... hautsi egin baitaiteke. Eta politikariek, ihesi doan zakurraren buztanari su eman beharrean, gertakizun horren sorburuak ezabatzen lagundu behar lukete! Langileak, logikoki, ez du inor bahitu edo atxiki nahi, lanpostua salbatu baino ez du nahi. Bera ez da krisi honen erruduna.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Tiraka blogean egorospe erabiltzaileak Jaurilaritza berria datorrela eta esanak: “Egur apur batek ez liguke kalterik egingo! Esmatzeko baliagarria litzateke; egoera errealaiz jabetzeko suspergarria. Zaunka baletoz, piztu egingo ginatete. Badakite, ordea, guk baino hobeto jakin ere, piztiari lozorroan eutsi behar zaiola; alegia, lotan diren milaka eta milaka euskaldun iratzartzen badituzte, arazo larriak izango dituztela. Zer egingo dute? laster jakingo dugu”.

XABIER LETONA

MALTZAGATIK

Inertziaren hiru irtenbideak eta laugarren aukera bat

ETA-REN aurkako azken polizia operazioak berriz jarri du agerian Espainia eta Frantziako segurtasun indarrek erakunde armatuaz duten kontrola. Kontrol erabatekoa? Ez da hala izango, bestela ETArenek egina luke eta, aldiz, hor jarraitzen du bere jardunean, hori bai, hainbat ahotatik entzun eta errealtateak erakusten duen legez, gero eta ahulago. Alfredo Perez Rubalcaba Espainiako barne ministroa gezurrerako eta amarrurako ondo prestatutako politikaria bide da, bere ibilbide luzeak ondo erakusten duen moduan, baina egia biribilak ere irristatzen dira bere berba jariatik: "Harrapatuko ditugu, ez izan zalantzarik". Eta harrapatzen dituzte, gero eta azkarrago gainera.

Berririk ez alde horretatik, eta-kide gehienek badakite lehenago edo geroago eroriko direla, baina azken urteetako abiadak etengabe jartzen du galdera mahaiaren gainean: "Noiz arte eutsi dakioke horrela jarduera armatuari?". Balizko erantzun ugari egon litezke, baina badira hiru molde nagusi: bat, ENAMen baitako sektore zenbaitzuk bultzatutakoa, "etorriko dira garai hobeak, beti etorri ohi dira"; bi, "kontrolatuak daukagu eta urte gutxi batzuetan amaituko dugu ETArekin", Madrilgo bulegoetatik haizatua eta mediatikoki indarrez gizarteratzen dena; eta hiru, eta seguruenik errealtate zantzu handiena duena, "honek luze jarrai dezake, ETA ahul dago, ez du Estatua dantzan jartzeko gaitasunik, baina bai bere burua geldo iraunarazteko, noizean behin lurrikara politikoa dakarten atentatuak eraginez".

Azken urteetako joerak, balizko erantzunen hirugarren ildoa indartzen du, baina aipatutako kinielatik ateratzeko aukerarik ere bada, ENAMen baitan nagusiki, baina baita gainerako eragile politiko eta sozialen eskuetan ere. Negoziazioa eta elkarrizketaren bidea da, ildo soberanistaren jorratzeak lagun dezakeena, eta beste hiru irtenbide moldeekin erkatuz gero, euskal gizar-tearentzat onuragarriena.

EUSKAL PRESOEN kopurua handitzera datoz bederatzi atxilotetak eta beste bederatzi familia Espainia eta Frantziako errepide eta trenbideetara joko dute astero 40 minutu, ordubete edo ordu eta erdiko bisitaldia egitera. Etxeratek 20 urteko sakabanaketa politika salatu du egunotan, honek "presoek kolektiboa" ez duela hautsi azpimarratuz. Eta ez zaio arrazoirik falta, alde horretatik presoek eta beren senideek ikaragarriko indarra erakutsi dute urte hauetan guztietan kilometro, inkomunikazio, eta presoien zaparradari eusteko. Baina sakabanaketa politikak zutik dirau, eta euskal gizar-tearen gehiengoa bere aurka egon arren, ez da berau desaktibatzen indar nahikorik erakutsi. Nagusiki higadurarako zigor tresna gisa sortu zen sakabanaketa, eta horretan bai, eraginkorra izan da eta izaten jarraitzen du. Euskal Herriko milaka familiatan sufrimendua eroin duen giza eskubideen aurkako politika da sakabanaketarena, biolentzia eta gorrotoaren hazi.

gaztelupeko
HOTSAK
Erritat 33
20049 SORRALUE
Tel: +34 943 750076
Fax: +34 943 750139
gaztelupeko@hotsak.com
www.hotsak.com

WWW.HOTSAK.COM

BILL LYERLY
Bill Lyerlyren bluesaren onena

GASTEIZ BIG BAND
EP 10" | Najera zuzenean

FOUR FRIENDS
Haruntzago

ESTRAMP JAC
Del Pirineu a L'Atlas

KEU AGIRRETXEA
Une akustikoa